


Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA

AURKIBIDEA

1. GAITASUNAREN EZAUGARRIAK

- a. Justifikazioa
- b. Definizioa
- c. Osagaiak
- d. Gaitasunaren deskripzioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailarako
- e. Irakasgaien ekarpenak hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko

2. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENENERAKO

- a. Orientabide orokorrak
- b. Orientabide zehatzak

3. OINARRIZKO GAITASUNEN EBALUAZIORAKO ORIENTABIDEAK

- a. Orientabide orokorrak
- b. Ebaluazio-tresnak
- c. Ebaluazio-tresnen ereduak

4. MATERIAL DIDAKTIKOA

- a. Sekuentzia didaktikoaren ezaugarriak
- b. Sekuentzia didaktikoaren planifikazioa
- c. Gaitasunen inguruan lan egiteko material egokiak

5. BIBLIOGRAFIA

1. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNAREN EZAUGARRIAK

a) Justifikazioa

Hizkuntza giza garapenerako funtsezko osagaia da bere bi alderdietan, indibiduala eta soziala. Indibiduala, gizabanako bakoitzari pentsatzea, bere ezagutza eraldatzea, bere jarduera antolatzea eta gauzak adieraztea ahalbidetzen diolako. Soziala, sozialki helarazi eta mantentzeaz gain, gizataldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duen jarduera baten baitan eratzen eta garatzen direlako. Kultura sortzeko, sendotzeko eta helarazteko tresna da.

Pertsonen bizitza afektibo eta kognitiboari estuki lotua, hizkuntza sentimenduen erregulatzailea eta ikaskuntza ororen bitartekorik behinena da, bai bizitzan bai mundu akademikoan. Hizkuntza menderatzea norberaren baitara hobeto hurbiltzeko, modu autonomoan ikasteko, besteen aurrean norberaren burua kokatzeko, bizikidetzara arautzeko eta besteekin elkarlanean aritzeko tresna egokiak edukitzea da.

Hizkuntzak, finean, norberaren irudia sortzen laguntzen du eta besteekiko nahiz ingurunearekiko harreman konstruktiboak faboratzen ditu. Komunikatzen ikastea beste pertsonekin harremanak ezartzea da, ezagutzen diren heinean aintzat hartuak diren kultura, errealitate eta mundu berrietara gerturatzea.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, hizkuntzaren erabilera-eremu ezberdinetan modu eraginkorrean komunikatzeko ahalmen gisa ulertua, funtsezkoa da, gainerako oinarrizko gaitasunak bezala, norberaren errealizazioa sustatzeko, ikaskuntza modu etengabe eta autonomoan garatzeko, gizarteratzeko eta herritar aktiboa izateko.

b) Definizioa

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna hizkuntza erabiltzeko trebetasuna da, hau da, kontzeptuak, sentimenduak, gertakariak eta iritziak ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez adierazi eta interpretatzeko eta gizarte- zein kultura-ingurune guztietan linguistikoki elkarreragitekoa.

Entzutea, mintzatzea eta solas egitea trebetasun linguistiko eta ez-linguistikoak beharrezkoak dituzten ekintzak dira besteekiko eta ingurunearekiko loturak ezartzeko. Horretarako, komunikazio-trukearen berezko arauak erabili behar dira testuinguru ezberdinetan, eta ahozko mintzairaren berezko ezaugarriak identifikatu behar dira komunikazio-egoera bakoitzerako egokiak diren ahozko diskurtsoak interpretatu eta ekoizteko.

Irakurtzea eta idaztea informazioa bilatu, bildu, hautatu eta prozesatzeko trebetasunak beharrezkoak dituzten ekintzak dira, pertsona askotariko komunikazio-asmoak dituzten testu-mota ezberdinak ulertu eta ekoizteko gaitzen dutenak.

Hizkuntza-komunikaziorako oinarrizko gaitasunak komunikazioaren egintzan elkarlotzen eta elkar elikatzen diren abilezien, ezagutzen eta jarreraren multzoa barne hartzen du.

Abileziak edo prozedurak askotariko diskurtsoak entzun eta ulertzeko nahiz mintzairaren bidez norberaren ideiak adierazteko beharrezkoak diren trebetasunak dira. Komunikazio-trukea arautzeko beharrezkoak diren estrategiak barne hartzen

dituzte, eta baita irakurketa-helburu ezberdinak dituzten askotariko testuak irakurri eta ulertzeko trebetasunak nahiz asmo ezberdinekin askotariko testuak, idazketa-prozesuaren fase guztiak kontrolatuz, idazteko trebetasunak ere.

Ezagutzak edo kontzeptuak beharrezkoak dira hizkuntzaren eta beraren erabilera- arauen inguruan gogoeta egiteko. Zehazki, alderdi linguistiko, soziolinguistiko eta pragmatikoei buruzko ezagutzak dira.

Jarrera egokiak dira entzutea, iritziak trukatzea eta besteen usteekiko errespetua nahiz kultura arteko komunikazioarekiko interesa sustatzen dituztenak. Gaitasun honen funtsezko osagai bat kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren balorazio positiboa da, beste kultura eta herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko bitarteko gisa. Era berean, irakurketa zein idazketarekiko jarrera positiboa bultzatu behar da, lehena gozamen- eta ikaskuntza-iturri moduan eta bigarrena gizarte-erregulaziorako eta ezagutza helarazteko tresna moduan.

Gaitasun honen garapenak hizkuntzak **erabileraren** bidez ikastea eskatzen du askotariko komunikazio-egoera eta -testuingurutan; izan ere, abileziak edo prozedurak, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean funtsezko eduki direnak, erabileraren poderioz –eta erabilera horren inguruan hausnartuta, hobetu ahal izateko– soilik garatzen dira. Ezinbestekoa da hizkuntza erabilera-egoeratan behatu eta aztertzea tresna hori hobeto menderatu ahal izateko, eta horrek hizkuntzaren erabileran esku hartzen duten osagai guztiei buruz gogoeta egitera garamatza.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna bi hizkuntza ofizialak –euskara eta gaztelania– modu egoki eta eraginkorrean erabiltzean zertzen da, testuinguru ezberdinetako askotariko komunikazio-egoeratan eta gero eta maila formal eta konplexuagoz. Atzerriko hizkuntzen komunikazioan, gaitasun honen garapenaz aurrez aipatu hizkuntza-trebetasunei lotutako oinarritzko abileziak eskuratzea lortu behar da, komunikazio-egoera eguneroko eta mugatuagoetan.

c) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren dimentsioak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna bloke handi batzuetan egituratu da, **DIMENTSIO** deituak. Dimentsio horietako bakoitza **AZPIGAITASUN** batzuetan zertzen da, eta azpigaitasun bakoitzerako ikasleak **jakin** eta **egiten jakin** behar duena azaltzen duten **EBALUAZIO-ADIERAZLE** batzuk xedatu dira.



Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna **DIMENTSIO** hauetan egituratu da:

- **AHOZKOAREN ULERMENA**
- **IDATZIAREN ULERMENA**
- **MINTZAMENA**
- **IDAZMENA**
- **AHOZKO ELKARREKINTZA**

AHOZKOAREN ULERMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoen zentzua berreraikitzeke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek batez ere hizkuntzaren erabileraren bi arloekin du zerikusia: pertsonarteko harremanak eta komunikabideak.

IDATZIAREN ULERMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuen zentzua berreraikitzeke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek ezagutzaren gizartean funtsezkoak diren informazioaren tratamendu eta hautaketarako oinarrizko trebetasunak biltzen ditu.

MINTZAMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoak, batik bat norberak kudeatuak, ekoizteke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honen baitan, komunikazio-egoera ezberdinetara egokitutako ahozko diskurtsoen ekoizpena gobernatzen duten berariazko trebetasunak menderatu behar dira; diskurtso horiek beren edukiaren antolaeran koherenteak eta bateratuak izan beharko dute.

IDAZMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuak ekoizteke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Testuok askotarikoak eta ezberdinak izango dira, komunikazio-egoera anitzetara egokituak, edukiaren antolaeran koherenteak eta testualki bateratuak, eta alderdi formaletan zuzenak.

AHOZKO ELKARREKINTZA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalari begira behar bezala garatu behar den pertsonarteko komunikazioa sustatzeko oinarrizko trebetasun, ezagutza eta jarreraren multzoa barne hartzen du. Berariazko ezaugarriak dituen dimentsio bat da, batik bat esanahiaren negoziazio partekatuari eta arau soziokomunikatiboak errespetatzeari lotuak.

Aldi berean, dimentsio bakoitza **AZPIGAITASUN** batzuetan zertzen da:

DIMENTSIOA: AHOZKOAREN ULERMENA

1. Ahozko testuen zentzu orokorra identifikatzea
2. Ahozko testuen helburua antzematea
3. Ahozko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea
4. Ahozko testuen edukia kritikoki interpretatzea
5. Ahozko testu-mota ezberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea

DIMENTSIOA: IDATZIAREN ULERMENA

5. Idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea
6. Idatzizko testuen helburua antzematea
7. Idatzizko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea
8. Idatzizko testuen edukia kritikoki interpretatzea
9. Idatzizko testu-mota ezberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea

DIMENTSIOA: MINTZAMENA

10. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartzea
11. Ekoizpen-prozesua planifikatzea
12. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea
13. Kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea

DIMENTSIOA: IDAZMENA

14. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea
15. Ekoizpen-prozesua planifikatzea
16. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea
17. Kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea

DIMENTSIOA: AHOZKO ELKARREKINTZA

18. Komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzea
19. Arau soziokomunikatiboak errespetatzea
20. Komunikazioari eusteko eta beraren eraginkortasuna areagotzeko estrategiak erabiltzea

Dimentsio eta azpigaitasunen zerrenda ikasle baten hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean esku hartzen duten hizkuntza guztiei aplikagarria da. Zerrenda, aurkezten den moduan, EAEko hizkuntza ofizialei begira egin da. Azpigaitasun hauek eta dagozkien adierazleak atzerriko lehen edo bigarren hizkuntza batean espero daitekeen menderatze-mailara egokitzeko, hainbat ñabardura egin beharko lirateke.

d) Gaitasunaren deskripzioa DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO BIGARREN MAILAN

Eztabaidagai da Oinarrizko Gaitasunen osagaiak etapaka edo mailaka deskribatu behar diren ala ez. Europako Markoaren proposamenak berak ohartarazten du, oinarrizko gaitasun gehienei dagokienez, oinarrizko garapen mailaren eta maila aurreratuaren arteko bereizketa egitea, agian, ez dela hain adierazgarria. **Gainera, arriskua dago deskribapen hori curriculum paralelotzat hartzeko.**

Baina Derrigorrezko Hezkuntzako etapetan zehar garatu beharreko gaitasunen deskribapen sekuentziatuari dagokionez, zuhurtziaz jokatzeko aholku hori egin den arren, diagnostiko-ebaluazioari lotutako proben erreferentziazko tresnatzat jo da. Hori dela-eta, aurkezten den deskripzioa irizpide berberen arabera gauzatu da oinarrizko gaitasun guztietarako.

Dimentsioa: Ahozkoaren ulermena

1.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) zentzu orokorra identifikatzea.

Adierazleak:

- *Testuaren zentzu orokorra ulertzen du*
- *Testuaren gaia inferitzen du*
- *Testuaren informazio-edukia laburbiltzen du*
- *Testuaren ideia nagusiak bereizten ditu*
- *Testuaren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu*
- *Testuaren atalen arteko erlazio logikoak antzematen ditu*

2.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) helburua antzematea.

Adierazleak:

- *Testuaren xedea identifikatzen du*
- *Ezagutza linguistikoak erabiltzen ditu testuaren xedea interpretatzeko laguntza gisa*
- *Igorlearen asmoa identifikatzen du*
- *Informazioa eta iritzia bereizten ditu*
- *Erabilitako hizkuntza-aldaera identifikatzen du*
- *Testuaren generoa antzematen du*

3.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea.

Adierazleak:

- *Informazio berria bereizten du*
- *Lortu nahi den helbururako garrantzizkoa den informazioa identifikatzen du*
- *Berriazko informazioa antzematen eta identifikatzen du*
- *Jasotako informazioa lortu nahi den helbururako erabiltzen du*

4.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) edukia kritikoki interpretatzea.

Adierazleak:

- *Testuaren edukia berak dituen ezagutzen argitan interpretatzen ditu*
- *Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du*
- *Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu*
- *Diskriminaziozko esakerak identifikatzen ditu*
- *Testuaren edukitik abiatuta bere iritzia ematen du*

5.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) ulermena hobetzeko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Entzute aktiboa egiten du*
- *Testuaren edukiari aurrea hartzen dio*
- *Informazioa atxikitzeko askotariko erregistro-baliabideak erabiltzen ditu*
- *Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu*

Dimentsioa: *Idatziaren ulermena*

6.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) zentzu orokorra identifikatzea.

Adierazleak:

- *Testuaren zentzu orokorra ulertzen du*
- *Testuaren gaia inferitzen du*
- *Testuaren funtsezko edukia laburbiltzen du*
- *Idea nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu*
- *Testuaren egitura orokorra berreraikitzen du*
- *Testuaren ideien arteko erlazio logikoak antzematen ditu*

7.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) helburua antzematea.

Adierazleak:

- *Testuaren xedea identifikatzen du*
- *Ezagutza linguistikoak erabiltzen ditu testuaren xedea interpretatzeko laguntza gisa*
- *Igorlearen asmoa identifikatzen du*
- *Informazioa eta iritzia bereizten ditu*
- *Erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du*
- *Testuaren generoa antzematen du*

8.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea.

Adierazleak:

- *Informazio berria bereizten du*
- *Lortu nahi den helbururako garrantzizkoa den informazioa identifikatzen du*
- *Berriazko informazioa antzematen eta identifikatzen du*
- *Jasotako informazioa lortu nahi den helbururako erabiltzen du*
- *Informazioa fitxetan edo datu-bilketarako beste sistema batzuetan erregistratzen ditu*

9.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) edukia kritikoki interpretatzea.

Adierazleak:

- *Testuaren edukia berak dituen ezagutzen argitan interpretatzen ditu*
- *Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du*
- *Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu*
- *Testuaren edukitik abiatuta bere iritzia ematen du*
- *Diskriminaziozko esaerak identifikatzen ditu*

10.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) ulermena hobetzeko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Testuaren edukiari aurrea hartzen dio*
- *Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu*
- *Ulermenean arazoak antzematen ditu*
- *Ulermenean arazoak konpontzeko estrategiak erabiltzen ditu*
- *Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu*

Dimentsioa: *Mintzamena*

11.- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea jarduera akademikoarekin zerikusia duten edo gai interesgarriei buruzkoak diren ahozko azalpen soilak ekoizteko.

Adierazleak:

- *Hartzailearen interesak eta ezagutzak kontuan izaten ditu*
- *Testuaren xedea kontuan izaten du*
- *Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du*
- *Erregistro egokia hautatzen du*
- *Informazioa ulergarri egiteko azalpen-prozedurak hautatzen ditu*

12.- Jarduera akademikoarekin zerikusia duten edo gai interesgarriei buruzkoak diren ahozko azalpen soilak ekoizteko prozesua planifikatzea.

Adierazleak:

- *Informazioa hainbat iturri eta euskarritan bilatzen du*
- *Lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du*
- *Eskemak egiten ditu informazioa antolatzekeo bitarteko gisa*
- *Diskurtsoa antolatzen du*

13.- Jarduera akademikoarekin zerikusia duten edo gai interesgarriei buruzkoak diren ahozko azalpen soilak egiteko orduan egoki eta zuzen mintzatzea.

Adierazleak:

- *Argi, zuzen eta ekarri egokiaz mintzatzen da*
- *Elementu prosodiko eta keinuzkoak egoki erabiltzen ditu*
- *Hartzailea inplikatzeko estrategiak erabiltzen ditu*
- *Testu-generoaren berezko arauak errespetatzen ditu*
- *Diskriminaziozko esaerak erabiltzea saihesten du*
- *Ikus-entzunezko baliabideen eta IKTen bermea erabiltzen du*

14.- Jarduera akademikoarekin zerikusia duten edo gai interesgarriei buruzkoak diren ahozko azalpen soilak egiteko orduan kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Ekoizpena arautzeko estrategiak erabiltzen ditu*
- *Autoebaluazio-estategiak erabiltzen ditu*
- *Ekoizpen-prozesuan autonomia agertzen du*

Dimentsioa: *Idazmena*

15.- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (gutunak, argibideak, arauak, abisuak, albistekak,

erreportajeak, kontakizunak, azalpenak, glosarioak, txostenak, liburuxkak...) ekoizteko.

Adierazleak:

- *Hartzailearen interesak eta ezagutzak kontuan izaten ditu*
- *Xedeari begira egokia den testu-generoa hautatzen du*
- *Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du*
- *Erregistro egokia hautatzen du*
- *Informazioa ulergarri egiteko azalpen-prozedurak hautatzen ditu*

16.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (gutunak, argibideak, arauak, abisuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, azalpenak, glosarioak, txostenak, liburuxkak...) ekoizpen-prozesua planifikatzea.

Adierazleak:

- *Informazioa hainbat iturri eta euskarritan bilatzen du*
- *Lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du*
- *Informazioa biltzeko teknikak erabiltzen ditu*
- *Edukia planifikatzen eta egituratzen du.*

17.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (gutunak, argibideak, arauak, abisuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, azalpenak, glosarioak, txostenak, liburuxkak...) egiteko orduan adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea.

Adierazleak:

- *Testu-generoaren ezaugarriak errespetatzen ditu*
- *Enuntziatuak modu bateratuan uztartzen ditu*
- *Testuaren komunikazio-eraginkortasuna hobetzeko estrategiak erabiltzen ditu*
- *Arau gramatikal, lexiko eta ortografikoak errespetatzen ditu*
- *Askotariko hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu: sintaktikoak, lexikoak...*
- *Testua berrikusteko interesa agertzen du*
- *Diskriminaziozko esaerak erabiltzea saihesten du*
- *Testua egoki eta zuzen aurkezten du*

18.- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (gutunak, argibideak, arauak, abisuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, azalpenak, glosarioak, txostenak, liburuxkak...) egiteko orduan kontroleko eta autoebaluazioko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Autoebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu*
- *Erabakiak hartzeko orduan inizatiba agertzen du*
- *Testua ekoizteko prozesuan zailtasunak antzematen eta konpontzen ditu*

Dimentsioa: Ahozko elkarrekintza

19.- Ikaskuntzarako eta gizarte-harremanetarako komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzea.

Adierazleak:

- *Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izaten ditu*
- *Naturaltasunez esku hartzen du eta aktiboki entzuten du*
- *Informazioa eta azalpenak modu ordenatuan ematen ditu*
- *Ikuspegi pertsonal bat azaltzen du*
- *Bere esku-hartzeari buruzko galderari modu egokian erantzuten die*
- *Besteen esku-hartzeen inguruan iruzkin eta galdera egokiak egiten ditu*
- *Egoerari begira erregistro egokia erabiltzen du*
- *Elkarrekintzan zehar hizkuntza-aldaera egokitzen du*

20.- Ikaskuntzarako eta gizarte-harremanetarako komunikazio-trukeetan arau soziokomunikatiboak errespetatzea.

Adierazleak:

- *Hizkuntza-moldeak errespetatzen ditu*
- *Besteen esku-hartzeak errespetatzen ditu*
- *Diskriminaziozko esakerak erabiltzea saihesten du*
- *Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu*
- *Denboraren erabilera kontrolatzen du*
- *Adei-legea errespetatzen du*

21.- Ikaskuntzarako eta gizarte-harremanetarako komunikazio-trukeetan komunikazioa mantentzeko eta beraren eraginkortasuna areagotzeko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Komunikazioari eusteko konpentsazio-estrategiak erabiltzen ditu*
- *Bere esku-hartzeen interesa areagotzeko estrategiak erabiltzen ditu*

e) Irakasgaien ekarpenak hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko

| | | |
|--------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA | IRAKASGAIAK | EKARPENAK |
| | EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, ATZERRIKO HIZKUNTZA | <p>-Askotariko testuak –etapa bakoitzeko komunikazio-egoera berezietara modu koherentean, kohesionatuan eta zuzenean egokituak– ulertzeko eta sortzeko ahalmena garatzea-</p> <p>-Hizkuntzari buruzko hausnarketa prozesuak transferi daitezkeen ikaskuntzak dira</p> |
| | MATEMATIKA | <p>-Matematika-hizkuntzaren funtsa ohiko hizkuntzan txertatzea eta zehaztasun egokiz erabiltzea da.</p> <p>-Nahitaezkoa da arrazoibideen eta prozesuen hitzeko deskripzioarekin zerikusia duten edukiei aparteko garrantzia ematea.</p> <p>-Kontua da nork bere adierazpen-gaitasuna garatzea eta besteek adierazten dutena entzuten ikastea, horietan biak laguntzen baitute ulermena, izaera kritikoa eta komunikaziorako trebetasunak hobetzen.</p> |
| | GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA | <p>-Hainbat testu tipo erabiltzeko, ulertzeko eta ekoizteko trebetasunak lortzen laguntzen du, batez ere, deskripzioa, narrazioa, argudioa...</p> <p>-Hiztegia aberasten ere laguntzen du, kontzeptu horiek arlo jakin bati badagozkio ere</p> <p>-Elkarrizketan eta debateetan jardutea, epai kritiko eta etikoa osatuz</p> <p>-Estereotipoak eta adierazpen sexistak, etnizistak... baztertea.</p> |
| | GORPUTZ HEZKUNTZA | <p>-Hiztegi espezifikoak.</p> <p>-Gorputz adierazpena ezinbesteko baldintza da adierazpen-komunikazio bat egiteko. Gorputz-hizkuntza (soinuak, hitz gabeko hizkuntza, sorkuntza-adierazpenak, dramatizazioa...) sentimenduak, ideiak eta mezuak komunikatzeko tresna da.</p> |
| | NATURAREN ZIENTZIAK | <p>-Hizkuntza eta komunikazioa zientziari lotutako ideiak eraikitzeko: Zientziak ikasteak lagundu egiten die ikasleei irudikapenak pixkanaka zehazten; izan ere, irudikapenak egiaztatu egin behar izaten ditu gelan eta bere buruarekin elkarrizketan jardutean. Horrela, aldaketa kontzeptuala lortzen du, eta pentsatzeko modu koherenteagoak eta argiagoak eskuratzen ditu - Zientziari buruz entzun, hitz egin, irakurri eta idaztea.</p> <p>-Berriazko terminologia zientifikoa eskuratzea</p> |

| | | |
|--------------------------------------------|--------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA | HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA | <p>-Nahiz arrazoizko debateetan eta eztabaidetan aritzeak nahiz lankidetzak hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari laguntzen diote, entzuten, azalpenak ematen eta argudiatzen trebatzea eskatzen baitute.</p> <p>-Sentimenduak, ideiak eta iritziak adierazteak ere, irakasgai hauetan ezinbestekoak baitira, gaitasun hori lortzen laguntzen du; izan ere, horretarako, hitzeko etaldatzizko hizkuntza erabili behar da, eta hainbat iturritatik publizitatetik eta komunikabideetatik iritsitako mezu esplizituen eta inplizituen balioespen kritikoa egin.</p> <p>-Gizartearen analisiari dagozkion termino eta kontzeptuak ezagutzeak eta erabiltzeak ere hiztegia aberasten laguntzen dute.</p> |
| | PLASTIKAREN ETA IKUSIZKOEN HEZKUNTZA | <p>-Gure ikusizkoen kultura osatzen duten edozein produktu ulertzeko, aztertzeo, manipulatzeko eta sortzeko prozesuek (hasi publizitatetik eta arte-produktu askotara arte) inplizituki daramate hitzekin lan egitea.</p> <p>-Tresna estetiko horietan testu idatziak sartzen badira, denotazio hutsetik erabilera poetikora, erretorikora, sinbolikora... igarotzen da.</p> <p>-Berariazko lexikoa.</p> <p>Lan-prozesuen transkripzioan, emandako ebazpenen arrazoiketan eta artelanen balorazioan ere garatzen da.</p> |
| | MUSIKA | <p>-Musikarekin lotutako lexiko espezifikoa bereganatzea eta erabiltzea</p> <p>-Hizkuntzek musikatik eskuratzen dituzte fonetikarekin, intonazioarekin, azentuazioarekin, ahoskerarekin eta abarrekin lotutako hainbat alderdi.</p> <p>-Musika-obrek denbora-garapena izaten dute; hori dela eta, musika-adierazpenetan, funtzio formalak erabiltzen dira, hizkuntza-komunikazioan erabilitakoen antzekoak: sarrera, azalpena, garapena, laburbilketa, amaiera...</p> <p>-Melodiak egituratzeko, soinu-zeluletan oinarrituriko egitura sintaktikoak erabiltzen dira: esaldiak, esaldi erdiak, sekzioak..</p> <p>. -Ahozko musikan hizkuntza askotako testuak erabiltzen dira. Ahozko generoen analisiak eta praktikak aukera ematen dute musika eta testuaren arteko elkarreragina hainbat ikuspegitatik aztertzeo: testuaren izaera, generoa eta zentzua; testuaren forma eta testuak musika-lanean duen funtzioa.</p> |
| | TEKNOLOGIAK | <p>-Hainbat motatako testuak irakurri eta ulertzea, batez ere, azalpen-testuak, sareko hipertestuak, fabrikatzaileen katalogoak, ikasliburuak, entziklopedia espezializatuak... ideiak elkar ulertuz entzuteko eta norberaren argudioak azaltzeko prozesuak</p> <p>-Elkarrizketarako jarrera lantzen da, taldearen helburu komuna lortzen lagunduko duen erabaki ezin hobea hartzeko</p> <p>-Testuak modu egokian gauzatzeko eta prozesuak eta emaitzak jakinarazteko ahozko testuak burutzea. .</p> |

| | | |
|--------------------------------------------|---------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| HZIKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA | LATINA | <p>-Latina ezagutzeak Europako hizkuntza erromanikoen gramatika funtzionala sakonki ulertzeko aukera ematen du, bai eta latina bezala flexiboak diren beste hizkuntza batzuenak –euskararena, adibidez-edo latinetik lexiko ugari jaso duten hizkuntzena ere. Elementu morfosintaktikoak eta lexikoak interpretatuz, bai eta itzulpenaren eta erretrobertsioaren bidez ere, ongi emandako eta erabilitako informazioa jasotzeko eta prozesatzeko trebetasuna lortzen da.</p> <p>-Latinaren historia eta bilakaera ezagutuz, errazagoa da hizkuntzak denbora pasa ahala aldatu egiten direla ulertzea eta eremu geografiko eta sozial desberdinak daudela ohartzea, bai eta horien arteko harremanak kultura arteko komunikazioa dakarrela aintzat hartzea ere. Ezagutza horrek hizkuntza guztiekiko interesa eta errespetua sendotzen du, hizkuntza zaharrekikoa eta gutxituekikoa barne, eta kultura-eta hizkuntza-desberdintasunetan oinarritutako estereotipoak baztertzea bultzatzen du.</p> |
| | INFORMATIKA | <p>-Testu-prozesadoreei esker hizkuntzaren jabe egin daiteke, testuak sortuz eta idatziz.</p> <p>-Era funtzionalean erabil daitezke, hiltun arrotzekin harremanak izanda.</p> <p>-Baliabide teknologikoak erabiliz komunikazio-inguru ezin hobeak sortzen dira iritziak, informazioak eta jakintzak trukatzeko, denboraren eta espazioaren mugarik gabe, eta, era horretan, denetariko solaskideak eduki daitezke.</p> <p>-IKT tresnekin lan eginez, baliabide horien hizkuntza ikasi eta interpreta daiteke, eta, horrela, jarrera kritikoa indartu.</p> |
| | KULTURA KLASIKOA | <p>-Hizkuntza klasikoak ezagutzen hastean ikasleak jabetzen dira Europako hizkuntza askok jatorri bera dutela, baita ikasten ari diren beste batzuek ere. Beraz, hizkuntza horiek zertan datozen bat ikasten dute, hizkuntza bakoitza nola bilakatu den, hizkuntzak zer geografia-eta gizarte-eremutan erabiltzen diren, bai eta hizkuntza-aniztasun horrek zer kultura-aberastasun dakarren ere. Ezaguera horrek hizkuntza guztiekiko interesa eta errespetua sustatzen du, baita antzinako eta gutxiengoaren hizkuntzekiko ere. Gainera, kultura-eta hizkuntza-desberdintasunetan oinarritutako estereotipoak bazterteaz gainera, beste hizkuntza batzuen ikaskuntza errazten du.</p> <p>-Hitzak eratzeko prozedurak eta grekolatindar etimologiak ezagutzeak aukera emango die ikasleei ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko, zientzien eta teknikaren lexiko jasoa eta berariazko terminologia aztertuko baitituzte. Ikasleek jakintza hori zenbait ikasgaitan erabili ahal izango dute.</p> |
| | ERLIJIOEN HISTORIA ETA KULTURA | <p>-Norberaren hausnarketen idatzizko adierazpenarekin batera, eztabaida eta elkarriketa sistematikoki erabiltzea</p> <p>-Hainbat formatutako idatzizko informazioak nahiz informazio grafikoak erabiliz.</p> <p>-Hainbat komunikazio-plano ezarriz (kideen artekoak, erlijioari eta filosofiari buruzko testuekin, Internet, etab.), komunikazio-mailak bereizten lagunduko da, eta horrek hainbat egoeratan moldatzen lagunduko die ikasleei.</p> |

HAUSNARTZEKO

“Lehengo batean, irakasle gelan klaustroko norbaitek esan zuen oinarrizko gaitasunen gaia betiko kontua dela, izena baino ez dela aldatu; dena asmatuta dagoela jada eta ez dagoela ezer berririk”.

- Zer esango zenioke? Zer nolako argudioak aipatuko zenituzkete oinarrizko gaitasunek hezkuntza planteamenduetan aldaketa dakartela konbentzitzeko?
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren dimentsioak aztertu. Zeintzuk lantzen dituzue ikasgelan? Zein dira hainbestetan lantzen ez dituzuenak edo inoiz lantzen ez dituzuenak? Zergatik? Aipatu hiru arrazoi.
- ‘Ahozko elkarrekintza’ dimentsioa aztertu. Zer garrantzi ematen diozue eskola saioetan berdinen arteko interakzioari? Normalean, eskola saioetako zenbat denboratan monopolizatzen duzue hitza?
- ‘Mintzamena’ dimentsioaren azpi-gaitasunak aztertu. Zeintzuk lantzen dituzue gelan? Aipatu normalean lantzen ez dituzuen hiru. Zer nolako jarduerak proposatuko zenituzkete azpi-gaitasun horiek zuen arloan lantzeko?

2. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENENERAKO

a) Orientabide orokorrak

“Esadazu, eta ahaztu egingo dut; erakutsidazu, eta gogoratu egingo dut; baina utzidazu parte hartzen, eta ikasi egingo dut”

(Txinako esaera zaharra)

Oinarrizko gaitasunak Curriculum berrian txertatzeak eragin zuzena du hezkuntzaren praktikan; izan ere, metodologia da gaitasunak garatzeko eragile nagusia.

Gaitasunak irakasgaien zein arloen irakaskuntza estankotik haratago doaz eta beraien garapena irakasle guztien ardura da. Horrenbestez, denen artean adostutako erabaki metodologikoak hartu behar dira. Oro har, **gaitasunen inguruko lanak irakaskuntza transmisiboaren eta ikaskuntza aktiboaren arteko bereizketa nabarmentzen du.**

Ikas-irakas prozesuak lantzeko eta ulertzeko bi modu horiek aspaldi daude hezkuntza munduan. Baina ikaskuntza aktiboari lotutako metodoak aurreko mendearen hasieran garatzen hasi baziren ere (Dewey, Freinet...), **gaur egungo hezkuntzaren praktika, hein handi batean, ezagutzen transmisioan dago oinarrituta.**

Hala ere, gaitasun kontzeptuak berak ematen du berori garatzeko zein den biderik egokiena antzemateko giltza. Gaitasuna garatzea bizitzarako ikaskuntza gauzatzea da, eskolan aurreikusi ezin diren egoerei erantzuteko eta egoera jakin bat ebaztean erabilitako ezagutzak (prozedurazkoak, jarrerazkoak eta kontzeptuzkoak) beste egoera edo arazo ezberdin batzuetara transferitzeko. Beraz, badirudi argi dagoela **gaitasunen garapenak ikaskuntza aktiboa behar duela, ikasleak prestatuko dituen izaten jakin dezaten, egiten jakin dezaten eta ezagutza aplikatzen jakin dezaten.**

Ikaskuntza aktiboa ez da gauzatzen metodologia bakar baten erabileraren bidez, posible da eta hala beharko litzateke ikasgelan jarduteko modu ezberdin eta askotarikoak erabili eta garatzea. Baina, esan behar da, badirela oinarrizko gaitasunen garapena oztokatzen duten jardunbide batzuk eta beste batzuk, aldiz, garapen horri laguntzen diotenak.

Curriculumak ezartzen duen 175/2007 Dekretuak hezkuntzaren praktika bideratu behar duten printzipio pedagogikoak zehazten ditu¹

¹ 175/2007 Dekretua. 10.artikulua. HAAE, 2007/11/13

(...) hezkuntza proiektuan jasotako printzipioez gain, honako pedagogia- printzipio hauek hartuko dituzte kontuan ikastetxeek:

1. – Hezkuntza-gaitasun orokorrak jaso behar ditu irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak, eta kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak biltzen dituzten oinarrizko gaitasunak lortzea izan behar du prozesu horren xedea.

2. – Lana proiektu osoen bidez eginez gero, erraztu egiten da oinarrizko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea eta jakintza-arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna.

3. – Ikastetxe-eredua hezkuntza-komunitatera eta, oro har, gizartera irekitzen ari dela, beharrezkoa da ebaluazioaren parte hartzea handitzea.

4. – (...)

Pedagogia-printzipio horiek era ezberdinetan gauzatu daitezke ikasgelako praktikan: atazak, ikasleen interesguneak, proiektuak... Haurtako edozein eredu didaktikok eragina izango du metodologia aldagaietan, hala nola, denboraren kudeaketan, ikastaldearen antolaketan, material didaktikoetan, ebaluazioan, sortuko diren interakzioetan ...

Beraz, metodologia bakarrari buruz barik, ikaskuntza aktiboaren baitan dauden printzipio eta estrategia metodologikoei buruz hitz egin behar da. Ondoko Dekalogoak ikaskuntza aktiboari laguntzeko, eta, horrenbestez, oinarrizko gaitasunen garapena bultzatzeko, irakasleek kontuan hartu behar dituzten zenbait estrategia metodologiko biltzen ditu:

- **Ikasgelan giro egokia sortzea:** lan egiteko giro afektibo aproposa, ikaskuntza sustatzeko espektatiba positiboak...
- **Parte-hartzeko estrategiak sorraraztea:** zalantzak adieraztea, ikaskuntza funtzionalak bultzatzea...
- **Ikaskuntzaren helburua lortzeko motibazioa bultzatzea:** helburuak jakinaraztea, lana gauzatzeko negoziazio jarduerak proposatzea, ikasleei hitza ematea...
- **Ikaskuntza autonomoari laguntzea:** transmisio hutsezko ikaskuntza mugatzea, irakasle-ikasleen ohiko eginkizunak aldatzea...
- **IKTak era esanguratsuan integratzea:** IKTen esparruko baliabide didaktikoak erabiltzea: wq-ak, altxorraren bila, blogak...; IKTak ikasteko zein gelakideen artean komunikatzeko erabiltzea...
- **Askotariko informazio iturriak erabiltzea era askotako euskarrietan:** informazio hautaketaren prozesua gidatzea; informazio iturritzat testu liburua soilik ez erabiltzea...
- **Ikasitakoa ahoz zein idatziz komunikatzea:** ikasitakoa jakinaraztea, azaltzea; berdinen arteko interakzioa bultzatzea ezagutza eraikitzeko...
- **Ebaluazio hezitzailea sustatzea:** auto-erregulaziorako egoerak sortzea, ebaluaziorako irizpideak jakinaraztea, auto-ebaluazioa zein koebaluazioa bultzatzea...
- **Toki eta denbora antolaketa desberdinak faboratzea:** ikasgelako

espazio antolaketa aldatzea, eskola saioen iraupena malgutzea...


- **Ikasitakoaren funtzionaltasuna eskola esparrutik kanpo bultzatzea:** irakasgaien zein arloen arteko erlazioak sustatzea, metodologia globalak erabiltzea...

Laburbilduz, IKASKUNTZA AKTIBOA BULTZATZEA

Halaber, ikasleek ondokoak behar dituzte:

- Bizitza errealari lotutako ataza esanguratsuetan inplikatu.
- Trebetasunak erabili egiten ikasteko eta ezagutzak aplikatzeko.
- Aukerak izan deskubritzeko, aurkitzeko, aztertzeko, interpretatzeko, eraikitzeko eta esperimatzeko.
- Feed-back-a lortu, ikaste-prozesuaren barruan egiten dutena egoera jakinetara eta momentuko beharrianetara egokitzeko.
- Egiten dutenaz hitz egin eta ikasitakoa jakinarazteko aukera izan.
- Ikasgelan gertatzen denaz eta ikasten dutenaz gogoeta egin
- Ikasten dutena aurretiaz ikasitakoarekin artikulatu, beren jarduteko eskemak aldatzeko.

Goian aipatutako zenbait estrategia metodologiko zein oinarriko gaitasunen garapenera lagun diezaioketen ikasgelako zenbait praktika biltzen ditu ondoko grafiko honek:



b) Orientabide zehatzak Hizkuntza-Komunikaziorako gaitasuna garatzeko

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapenean, gainontzeko gaitasunen garapenean bezalaxe, testuinguru formaletako eta ez-formaletako ikaskuntzek eragiten dute. Horregatik, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko orientabideak ikasleen hizkuntza gaitasuna garatuko duten askotariko testuinguruei dagozkie (hizkuntza irakasgaiei, beste irakasgai guztiei eta eskola testuinguruari), Oinarrizko Hezkuntzarako Dekretuak hizkuntzen atalean zehazten duen bezala:

“... Baina hizkuntza-irakasleak ez dira horien irakaskuntzaz eta ikaskuntzaz arduratzen diren bakarrak; izan ere, eskola-erakunde osoak hartzen du parte prozesu horretan. Horregatik, irakasgai guztietako irakasleek dute taldeko zeregin horretan laguntzeko erantzukizuna, eta, ondorioz, bakoitzari dagokion jakintzagaia ikasleek behar bezala ulertzea eta adieraztea bermatu behar dute. Halaber, elkarriketa bultzatu behar dute, ezagutza handitzeko eta hizkuntzaren oinarrizko trebetasun kognitiboak jasotzeko bitartekotzat.”²

Hizkuntza irakasgaiei dagokienez, aurreko atalean aipatutako estrategia eta eredu didaktikoak hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntzarako IKUSPEGI KOMUNIKATIBOAREN bidez gauzatzen dira. Ikuspegi horren arabera, hizkuntza-komunikazio tresna da eta hizkuntzaren erabilera eta erabileraren hobekuntza ditu helburu nagusi. Premisa honek zenbait ondorio didaktiko ditu:

- ikasleek burutuko duten ikaskuntzari funtzionaltasuna eta zentzua ematea, esanahia ematea, alegia.
- jarduerak ikasleen komunikazio beharrezanaren inguruan antolatzea.
- irakasleen egitekoa aldatzea.
- ikasleen autonomia sustatzea.
- ebaluazio hezitzailea egitea.
- testuen ulermen eta ekoizpen prozesuak lantzea.
- ...

Horretara, hizkuntzen ikaskuntzan eta irakaskuntzan Tratatua Bateratua erabili behar da; horrela, hizkuntza arlo guztietako irakasleek adostutako metodologia koherente eta bateratuen bidez edukiak banatzea ahalbidetuko da eta hizkuntza batean ikasitakoa besteetara transferituko. Ikasgelan hau guztiau **idazketa-proiektuak**³ bezalako eredu didaktikoen bidez gauza daiteke da. Hauetan, jardueren sekuentzia ahozko edo idatzizko azken ekoizpen baten arabera dago antolatuta. Ekoizpen horrek egoera erreal bati lotutako komunikazio arazo bat planteatzen du, eta horri erantzuna eman behar zaio, idazketa-proiektuaren parametroak (non, noiz, nola, zergatik..) ikasleekin adostu eta gero.

Curriculumeko beste irakasgai guztiei dagokienez, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapena, batez ere, hizkuntza ikasteko tresna gisa erabiltzeari dago

² 175/2007 Dekretua

³ Idazketa proiektua. Adibide bat. http://www.berrikuntza.net/areas/materiales/materiales_arch/489.pdf

lotua. **Irakasgai bat ikastea berari buruz hitz egiten eta idazten jakitea da;** beraz, lexiko bereziaren ezagutzatik haratago, beste arlo eta irakasgaietako irakasleen erantzukizuna ere bada testuak lantzea, bai ahozkoak bai idatzizkoak. Esaterako, ez da gauza bera iritzia defendatzeko argudiatzea edo argudiatzea zerbait egiaztatzeke; halaber, ez dira berdinak hizkuntza arloko deskribapena eta deskribapen zientifikoa.

Aipatutako ideia horrekin batera, ahozko elkarreragina ezinbesteko aldagaitzat hartu behar da ikaskuntza bultzatzeko eta partekatutako ezagutza eraikitzeke *“Ayudar a los chicos y chicas a hacer significativo el conocimiento implica prepararlos para conocer la temática del área aprendiendo las estructuras lingüísticas en las que esta temática se comunica y se construye”*⁴

Horrenbestez, arlo guztietatik bultzatuta eta denek adosturik, guneak, momentu proposak, aukerak... eskaini behar dira ikasleek elkarrekin hitz egin eta eztabaida dezaten; horrela, beren ezagutza-eskemak aldatu ahal izango dituzte.

Elkarreragina modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko, bestalde, funtsezkoa da ikasleek eta irakasleek egitekoaren irudikapen berdinak izatea, proposatuko zaien ikaskuntzan denak inplikatu ahal izateko. Beraz, behar-beharrezkoa da lortu nahi diren helburuak eta jarraituko den prozesua argi eta zehatz adieraztea. Ikasgelako giroa ere oso garrantzitsua da; izan ere, lagungarria izan daiteke edo traba bihur daiteke elkarreragina eta partaidetza bultzatzeko eta, elkarrenganako konfiantza eta errespetutik abiatuta, autoebaluazio zein koebaluazio jarduerak proposatzeko.

Bestalde, Curriculumeko arlo eta irakasgai guztietan eztabaidatu eta adostu egin behar dira hizkuntzen erabilerari lotutako erabakiak eta ageriko egin ikastetxeko dokumentuetan, hala nola, Hezkuntza Proiektuan, Hizkuntza Proiektuan eta Curriculum Proiektuan. Erabaki horiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, ikasleen hizkuntza-komunikaziorako garapenean eragingo dute.

Ikastetxeari dagokionez, berriz, badira zenbait erabaki hizkuntza-komunikazioaren gaitasunari lagun diezaioketenak, hala nola, ikastetxeko liburutegiaren hornikuntzari edota gune hori ikaskuntzarako erabiltzeari dagozkionak, irakurzaletasuna bultzatzeko eta informazio iturri askotariko sarbidea ahalbidetzeko gune gisa. Esparru horretan, Oinarrizko Hezkuntzan zehar irakurketarako abileziak eta trebetasunak lantzeko asmoz, ikastetxeak modu bateratuan hartu behar ditu ikasleentzako Irakurketa Plana gauzatzeko eta ikastetxeko hizkuntzetan garatuko diren irakurketa ekimenak zein irakurketaren helburu ludikoari lotutako jarduerak zehazteko erabakiak.

Irakurketa Plana ikastetxe osoaren egitekoa da, ikas komunitatearen baitan irakurtzeko giroa eta ohitura sustatze aldera. Eginkizun horretan, familien partaidetza bultzatu behar da eta ikasleen zaletasunak eta interesguneak kontuan hartu; izan ere, beraiek dira protagonista. Halaber, ikastetxetik at, gizartearen proposatzen diren ekimenak ikastetxera eraman behar dira, hala nola erakusketak, liburuen aurkezpenak, literatur lehiaketak...

Ikastetxe osoari dagozkion beste erabaki batzuk arlo eta irakasgai ezberdinetan bai eta bertako guneetan erabiliko den hizkuntzari lotutakoak dira. Adostu egin behar da zein hizkuntza erabiliko den eskolako jantokian, ikasleen familiekiko erlazioetan eta inguruan, zein den ikastetxearen hizkuntza paisajea...

Horretaz gain, ikastetxeak arreta handiz landu behar ditu hizkuntza aniztasunarekiko eta, bereziki, hiztunekiko jarrera positiboak, hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesuetan

⁴ **Hablar y escribir para aprender.** Jorbá, Gómez y Prat. Síntesis argitaletxea, 2000. urtea (113. or.)

duten erabateko eraginagatik. Beraz, ikastetxeak egungo euskal gizartearen baitan parte-hartze egokia ahalbidetzeko beharrezkoak diren hizkuntzak era integratuan eta elkarren osagarri lantzea bermatu behar du.

Halaber, teknologia berriak bultzatu behar ditu ikaskuntzarako eta komunikaziorako ematen dituzten aukera anitzak eta askotarikoak erabiliz; horrela, ikasleak elkarrekin aritzeko aukera izango dute eta hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna hobetu ahal izango dute beste herrialde batzuetako, beste kultura batzuetako eta beste hizkuntza batzuetan mintzatzen diren ikasleekin izango duten komunikazio digitalaren bidez.

HAUSNARTZEKO

“Lehengo batean irakasle gelan klaustroko norbaitek esan zuen ikasleek gero eta maila kaskarragoa dutela eta ikasturte honetan, esaterako, ezin izango dituela gai guztiak eman”

- Iritzi horrek irakaskuntzaren zein kontzepzio islatzen du? Uste duzue irakaskuntzaren ikuskera hori bat datorrela gaitasunen garapenean oinarrituta egon behar duen irakaskuntzarekin?
- Zein neurritaraino zaudete ados ikaskuntza aktiboaren planteamenduarekin? Ikaskuntza transmititu egiten da ala eraiki egiten da? Irakaslearen eginkizuna, informazio iturri bakar gisa, baliagarria da XXI. mendean?
- Atal honetako grafikoari erreparatu. Bertan ageri diren estrategia eta jardunbideen artean zein dira ohikoak zuen ikastetxean? Hauta itzazue horietako hiru, zuen ustez adierazgarrienak, eta esan nola gauzatu daitezkeen zuen ikastetxean.
- Dekalogoan aipatutako estrategia metodologikoetatik zein dira, zuen ustez, inportanteenak? Hautatu hiru eta ikasgelara eramateko modu zehatzak planteatu.
- Zuen eskola saioetan banakako lana ala taldeko lana da nagusi? Ikasleen arteko eztabaidak eta debateak bultzatzen dituzue? Denbora galtze hutsa dela uste duzue?
- Pentsatu hiru bide ezberdin, denbora eta tokia antolatzeko erari dagokionez, zuen ikastetxea eraginkorragoa izan dadin oinarritzko gaitasunen garapenari laguntzeko.

3. GAITASUNEN INGURUKO EBALUAZIORAKO ORIENTABIDEAK

a) Orientabide orokorrak

Ebaluazioak ikaskuntzaren motorra izan behar du eta ikas-irakaskuntza prozesuekin bat egin; izan ere, ikasteak berekin ditu arazoak antzematea, zailtasunak eta oztopoak gainditzea, akatsez eta huts egiteez konturatzea eta zuzentzea. Ebaluazioaz hausnartzen denean, badira erantzun behar ditugun oinarritzko galderak. Baina, egun, galdera horiek gaitasunen inguruko marko berrian, beste ikuspegi eta zentzu bat hartzen dute. Ohiko galderak, beraz, paradigma berri baten baitan ageri dira:

- *Zertarako ebaluatu?*
- *Noiz ebaluatu?*
- *Nork ebaluatu?*
- *Zer ebaluatu?*
- *Nola ebaluatu?*

Zertarako ebaluatu?

Galdera honek lerro jarrai bereko muturretan dauden bi erantzunen aurrean jartzen gaitu, ebaluazioa ulertzeko bi ikuspegi ezberdin islatzen dituzten bi erantzunen aurrean, alegia:

- Ebaluatu egingo da ezagutza jakin batzuk eskuratu direla egiaztatzeko. Ebaluazioaren ikuspegi honek **ebaluazio sumatiboaren** esparruan kokatzen gaitu.
- Ebaluatu egingo da ikasleen ikaskuntza prozesuaren zailtasunak eta aurrerapenak antzemateko eta prozesua ikasleen beharrian errealetara egokitzeko. Ebaluazioaren ikuspegi honek **ebaluazio hezitzailearen** esparruan kokatzen gaitu.

Oraintsura arte ebaluazio sumatiboak izan du indarra hezkuntza jardunetan, beraren hautatze-funtzioak eraginda. Ebaluazioa, tradizioz, unitate didaktikoak bukatu ondorengo azterketei, probei, loturik joan ohi da. Horien bidez, gehienetan, ikasleen ezagutzen lorpen maila, eta bereziki, kontzeptuzko ezagutzen lorpena, baino ez da adierazten.

